

## 1.- KASUA

«XX jauna» enpresa baten titularra da eta honi buruz Gizarte Segurantzak 2011tik 2016ra arteko epeari dagozkion kotizazio aldeak, bai eta luzakeri birkargua ere, eskatzen dizkio.

Era berean, 2011ko Urrian, «MM SA» erakundeak «XX jaunari» inoren konturako soilik zen langile gisako kontratua burutu zion.

Horren ondorioz, Gizarte Segurantzak bere egintza «MM SA» erakundearen kontra bideratzen du, hau erantzule solidarioa uste izanik, enpresa jarraipena gertatu dela ulertuz.

### EGINTZAK:

XX Jauna enpresa baten titularra denez Gizarte Segurantzarekiko kuota batzuk bete behar ditu. Enpresaren iraupenean, MM SA erakundeak lan kontratu bat egiten dio XX jaunari, horregatik Gizarte Segurantzak bere egintza MM SA erakundearen kontra bideratzen du.

### LEGERIA:

Kredituak, ez dira enpresarekin batera eskualdatuko. Kasu honetan, hartzekodun-eskualdatzaileak eta enpresaren eskurtagaileak espresuki adostu beharko dute kredituen lagapena. Bertan ondo finkatuta geratu beharko da nor den hartzekoduna, zordunak ez du onarpena eman behar, baina honen berri izan behar du.

### EPAIA ETA FUNTSAK:

Kasu honetan Gizarte Segurantzak ez du eskubiderik MM SA erakundearen aurka joateko, hau gertatzekotan, zordunak ordaindu behar ez dionari ordaintzen badio bere obligazioa ondo burutua egongo zen eta hartzekodun errealak zordunak ordaindu dion hartzekodunari eskatu beharko dio kreditu hori.

## 2.- KASUA

«XX SL» Sozietatea «MM» erakundeari dagozkion zenbait tokien garbiketa-zerbitzuaren adjudikazio-hartzailea zen. Epealdi hartan, aipaturiko sozietateak langile batekin lan-kontratua burutu zuen, geroago langile hau kaleratuz.

Adjudikazio kontratuaren amaieran, «MM» erakundeak aipaturiko garbiketa-zerbitzua bere langileez jaso zuen. Kaleratua izan zen langileak «XX SL» Sozietateari eta «MM» erakundeari solidaritatez demanda ipini zion, enpresa jarraipena gertatu zela alegatuz.

### EGINTZAK:

XX SL sozietateak garbiketa zerbitzu baten beharretan MM erakundearen laguntza kontratatzen du. Epealdi horretan XX SL sozietateak langile bat kontratatu eta garbiketa zerbitzuen kontratuaren amaieran langilea kaleratzen du. Ondorioz langileak sozietateari zein erakundeari demanda bat jartzen die, enpresaren jarraipena egon dela adieraziz.

### LEGERIA:

12/1992 Legea, maiatzaren 27ko, 27. artikulua arabera: hirugarrenekin baterako kontratuetan, kontratuak jarraitzen du.

### EPAIA ETA FUNTSAK:

Ez enpresak ez erakundeak ez dute eskubiderik langilea kaleratzeko. Legearen arabera hirugarrenekin dauden kontratuak, kontratu legapen salbuespenen arabera, kontratuak jarraitu behar duelako. Hau da, langileak eskubide osoa du demanda aurrera eramateko.

### **3.- KASUA**

«XX SA» Sozietatea iraungi egiten da Gizarte Segurantzari zenbait kopuruen zorra utziz. Geroago, Sozietate berri bat eratzen da «MM SA»-, zeinek «XX SA» sozietatearen toki bera errentan hartzen baitu, bai eta bere makineria eta bere langileak Gizarte Segurantzaren kidetu ere.

Sozietate biak Sozietatea-helbidean eta beraien objektuan batera datoz. Gainera, «MM SA» Sozietatea berriaren bazkide batek «XX SA» Sozietatean bazkide eta Kontseilari-Ordezkatu izaerak izan zituen.

Horren arabera, Gizarte Segurantzaren Diruzaindegi Orokorrak, Gizarte Segurantzaren kuota ordainketa ezari dagokionez, Sozietate bitzuren solidaritatezko erantzukizun adierazpena eskatzen du, aipaturiko Sozietateen artean enpresa jarraipena gertatu dela ulertuz.

#### **EGINTZAK:**

Sozietate bat iraungi egiten da Gizarte Segurantzari hainbat zor utziz, eta hau zegoen leku berdina eta honek zuen makineria eta langile berdinak sozietate berri batek eskuratzen ditu. Gainera sozietate berriaren bazkide bat aurreko sozietatearen bazkide eta kontseilaria zen, honegatik Gizarte Segurantzak bi erakundeetara erantzukizuna eskatzen die.

#### **LEGERIA:**

KZ 1205. artikuluan oinarrituz (Berritzea da jatorrizko zordunaren ordez beste zordun bat jartzea; berritzea jatorrizko zordunak jakin gabe egin daiteke, baina ezin daiteke egin hartzekodunarekin adostasunik gabe) zorrak ez dira enpresarekin automatikoki eskualdatuko.

#### **EPAIA ETA FUNTSAK:**

Zordun eskualdatzaileak eta enpresaren eskuratzailak zorren jasotzea espresuki adostu beharko dute. Gainera kasu honetan hartzekodunari zordun berria nor den adierazi behar zaio eta honen onarpena jaso behar da, horregatik Gizarte Segurantzak ezin dio bi sozietateetara erantzukizuna eskatu aurretik itundua badute eta honen onarpena jaso badute.

### **4.- KASUA**

«XX Patronatuak», Granadan, «MM» izeneko eta Taberna-Kafetegi-Jatetxera bideraturiko etxalde baten jabeak, 2011ko Martxoaren 9an «AB.» jaunarekin errentamendu kontratu bat burutu zuen. Aipaturiko kontratuak hurrengo hau ezartzen zuen:

1.- Patronatuak, «MM» izeneko Taberna-Kafetegi-Jatetxe negozioa jarrita eta funtzionamenduan zuen osorik, bere jartzapen, tresneria, altzari, etab. guztiaz, zeintzuk eranskin batetan zerrendatzen baitziren.

2.- «AB.» jaunak negozioaren ustiapen industriari on baten arduraz burutuko zuen, narriatu zitezkeen elementuak birjarriz, errentapen epea bukatzerakoan negozioa hobezinezko funtzionamendu egoeran Patronatuari bihurtu ahal izateko.

3.- Kontratuaren iraupen epea urtebetekoa izango zen, estariz beste urte batez luzagarria izanik. «AB» jaunak, "honi buruz ituntzeko erabili diren aipamen bereziak kontuan harturik", ezin zuen negozioa laga, eskualdatu edota berrakuratu.

4.- Aipaturiko errentariak, egun hartara arte «TS» erakundeak eraman zuen eta kontratuaren datan negozioan zerbitzuak prestatzen zituen pertsonal guztiaren ardura hartzen du, beren lan-eskubideekin. Patronatuak prezioak onartu beharko ditu. Kontratuaren indar unetik, XXeko enplegatuei eguneko menua prezio berezian zerbitzatuko zaie.

5.- «AB» jaunak makineria, gailu berriak edo altzari hornizioak gehitu edo osatu beharrezkoak direla uste izango balu, «XX Patronatuaren»aldez aurreko baimena lortu beharko du eta haren kostea bere kontura izango da.

#### **GRADUKO IKASKETAK – ZUZENBIDERAKO SARRERA 2022-2023 IKASTURTEA**

4

6.- «AB» jaunak baxera, zamauteria, kristaleria eta gainerako gai suntsikorak ekarriko ditu.

7.- Negozioaren kontraprestazio gisa, Patronatuak salmenta gordinaren zenbatekoarekiko urteroko partaidetasun batzuk jasoko ditu, zeintzuk bi milioiekiko %15.etik aipaturiko kopurua gaintzen duen zenbatekoarekiko %20.ra arte baitabilta, hau Patronatuak kutxan izendaturiko pertsonalak, baina «AB» jaunaren kontura dagoenak, kontrolatuz.

8.- Jartzapen, altzari eta inbentarioan sarturiko elementuen berme gisa, «AB» jaunak

suteen kontrako aseguru poliza bat izenpetuko du.

9.- Patronatuak ikuskaritza ahalmenak erreserbatzen ditu.

10.- Obligazioen ez betetzeak kontratuaren bertan behera uztea sortaraziko du."

Patronatuak kontratua industria errentapenezkoa kalifikatzen du, kontratu-epea amaitzerakoan, bere bertan behera uztea aritu ahal izateko. «AB» jaunak, aldiz, tokian falta ziren ondasun higigarri guztiak, bai eta negozioaren ezarkuntzarako eta funtzionamenduan ipintzeko beharrezkoak zirenak ere, erosi behar izan zituela adierazten du; hau da, ez zirela beharrezko elementu eratuak laga. Horren arabera, kontratua negozio toki errentapenezkoa kalifikatzen du, Hiriko Errentapenen Legera eta ezinbesteko luzapen ahalbidera loturik.

#### EGINTZAK:

MM izeneko taberna-kafetegi-jatetxe baten errentamendu kontratua egin dute bi pertsonak.

Honetan, hainbat klausula daude non adierazten den patronatuak nola utzi behar duen lokala eta betebeharreko eginkizunak. Hala ere, kontratuaren amaieran AB jaunak adierazten du, hainbat material eta makineria erosi behar izan dituela negozioa aurrera eraman ahal izateko. Hau ez zen bere betekizuan, kontratuak dion bezala Patronatuak eskuragarri utzi behar zizkiolako. Horregatik, honek toki errentapenezko bezala kalifikatzen du kontratua luzatzeko eskubidea lortu ahal izateko.

#### LEGERIA:

Errentatzaileak obligazio batzuk ditu, kasu honetan, errentariari eman beharko dio negozioa funtzionamenduan mantentzeko beharrezko duen gauza eta ahalmen guztiekin. ahalmena. Gainera, kontratuaren iraungitzearen inguruan, itundutako epea iraungitzearen bitartez kontratugileetariko batek bere obligazioak ez betetzeak duen suntsiarazpenaren bitartez ematen da.

#### EPAIA ETA FUNTSAK:

AB jaunak arrazoia dauka, errentatzaileak ez du bere obligazio denak bete, honek kontratuaren haustura suposatzen du. Errentariak kontratuaren iraupenean gozatze baketsu bat izateko errentatzaileak betebeharra du errentariari kontratuaren objektu den gauza emateko.